establezcan, de un inventario de bienes en el que constará, como mínimo, el listado de bienes y recursos integrantes y una relación de operaciones de administración y disposición relativas a los citados bienes y recursos, con indicación del destino final previsto para ellos. Este registro de explotación estará sujeto a los mecanismos de control establecidos en esta ley.

Artículo 15. Naturaleza y destino

1. El Patrimonio Público de Suelo de la Comunidad Autónoma del País Vasco estará integrado por un patrimonio independiente y separado del resto de su patrimonio y será gestionado por el departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, en el cumplimiento de los siguientes fines:
 - a) La adquisición de suelo o de edificabilidad urbanística residencial con destino a la promoción o construcción de viviendas, alojamientos, locales y anejos.
 - b) La promoción o construcción misma de las mencionadas edificaciones protegidas, así como de equipamientos públicos relacionados con la propia actuación.
 - c) La urbanización, regeneración, renovación, revitalización o rehabilitación de áreas urbanas, barrios, áreas degradadas, núcleos de población y edificios en general, para la promoción y construcción de viviendas y el cumplimiento de los principios, directrices y objetivos de la presente ley.
 - d) El fomento de la planificación, programación y cooperación y la disposición de medios tecnológicos adecuados para el desarrollo de las políticas públicas de vivienda y regeneración urbana.
 - e) El fomento de la oferta privada de vivienda de alquiler, siempre que a la hora de establecer las rentas siga los mismos criterios que el alquiler público.
 - f) La promoción y la ejecución de cuantas actuaciones sean precisas para hacer efectivo el derecho de acceso a la ocupación de una vivienda digna y adecuada en los términos previstos en la presente normativa.



- g) Beste edozein helburu, baldin eta betezen baditu lege honetako 1. artikulua-ren 2. paragrafoko legezko parametroak eta 2 eta 40. artikuluetako printzipioak .
2. Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurzoru Ondare Publikoko ondasunak eta baliabideak ezin izango dira erabili artikulua honetan zehaztutakoak ez diren beste helburu batzuetarako, ezta ere Lurzoru Ondare Publikoa bera administratzeak, mantentzeak eta handitzeak dakartzan gastuez bestelakoak estaltzeko.
3. Lurzoru Ondare Publikoa administratzearen barruan sartzen dira ondare publiko horren legezko helburuak betetzeko beharrezko ahalmenak eta ahalak, xedatzekoa eta gastua egitekoa barne, bai eta haren aldeko nahitaezko desjabetzeak, ordezenak eta birpartzelazioak egitekoa ere.
4. Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurzoru Ondare Publikoaren araubide juridikoa erregulamendu bidez garatuko da.

16. artikulua. Lurzoru-ondarea osatzen duten ondasunak eta baliabideak

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurzoru Ondare Publikoaren barruan ondasunak eta baliabide ekonomikoak sartzen dira.
2. Lurzoru Ondare Publikoa osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorren titulartasuneko ondasun hauek:
- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorren titulartasuneko ondasunen artetik hartara zuzentzen direnak, bai eta etxebizitza babestuei edo zuzkidura-bizitokiei buruzko politika publikoei loturik daudenak ere.
- b) Lurzoru-ondare publiko hori osatzeko, mantentzeko edo handitzeko eskuraturiko higiezinak edo eskubideak, edozein sailkapen eta kalifikazio urbanistiko dutelarik ere.
- c) Lurzoru Ondare Publikoko beste ondasun batzuen truke eskuraturiko lursailak.

- g) Cualesquiera otros que atiendan al cumplimiento de los parámetros legales previstos en el artículo 1, apartado 2, y de los principios contenidos en los artículos 2 y 40 de la presente ley.

2. Los bienes y recursos del Patrimonio Público de Suelo de la Comunidad Autónoma del País Vasco no podrán destinarse a fines distintos de los previstos en este artículo, así como tampoco a la cobertura de gastos diferentes a los que resulten de la administración, mantenimiento e incremento del propio Patrimonio Público de Suelo.
3. La administración del Patrimonio Público de Suelo comprende las facultades y potestades precisas para el cumplimiento de sus finalidades legales, incluidas las de disposición y gasto, así como la de expropiación, sustitución y parcelación forzosa en su beneficio.
4. Reglamentariamente se desarrollará el régimen jurídico del Patrimonio Público de Suelo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 16. Bienes y recursos integrantes

1. El Patrimonio Público de Suelo de la Comunidad Autónoma del País Vasco estará integrado por bienes y recursos económicos.
2. Forman parte del Patrimonio Público de Suelo los siguientes bienes de titularidad de la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco:
- a) Los bienes de titularidad de la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco que sean destinados a él, así como los vinculados a las políticas públicas de vivienda protegida o de alojamientos dotacionales.
- b) Los inmuebles o derechos adquiridos, cualquiera que fuese su clasificación y calificación urbanística, para constituir, mantener o incrementar este patrimonio público de suelo.
- c) Los terrenos adquiridos por permuta con otros bienes del Patrimonio Público de Suelo.





- | | |
|---|--|
| <p>d) Lege honetan arauturiko eroslehentasun-
eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubi-
dea erabiliz lorturiko ondasunak.</p> <p>e) Euskal Autonomia Erkidegoko Adminis-
trazio orokorraren titulartasuneko etxebi-
zitza babestuak eta eranskinak, zuzkidura
-bizitokiak eta lokal babestuak, eta, hala-
ber, beste etxebizitza, eranskin eta lokal
batzuk, haiek xedatzeko adinako titulua
izanez gero, alokatzea barne.</p> <p>f) Nahitaezko desjabetzearen bidez eskura-
tuak.</p> | <p>d) Los bienes adquiridos mediante el ejerci-
cio de los derechos de tanteo y retracto
regulados en esta ley.</p> <p>e) Las viviendas protegidas y anejos, los
alojamientos dotacionales y los locales
protegidos de titularidad de la Adminis-
tración general de la Comunidad Autó-
noma del País Vasco, e igualmente otras
viviendas y demás anejos y locales sobre
los que se ostente un título suficiente que
permita su disposición, incluido el arren-
damiento.</p> <p>f) Las adquiridas vía expropiación forzosa.</p> |
| <p>3. Lurzoru Ondare Publikoari loturiko baliabide
ekonomikoak dira honako hauek:</p> <p>a) Ekonomia- edo aurrekontu-ekitaldi ba-
koitzean Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazio orokorreko aurrekontu
orokorretan Lurzoru Ondare Publikoaren
helburuak betetzeko gordetzen den kopu-
rura.</p> <p>b) Lurzoru Ondare Publikoko ondasunak
administratzetik edo xedatzetik datozen
diru-sarrerak, ondasun horiek eskualda-
tzea, errentan jartzea edo, orokorrean,
haien gaineko eskubideak ezartzea dela
eta.</p> <p>c) Lege honetan aurreikusitako tutoretza-
diziplina- eta zehapen-ahalak erabiliz
Eusko Jaurlaritzak jartzen dituen hertsapen-
isun eta zehapenetatik sartzen diren
kopuruak.</p> <p>d) Hipoteka-berme modura Lurzoru Ondare
Publikoko ondasunak dauzkaten kredi-
tuak.</p> <p>e) Edozein pertsona fisikok edo juridikok
Lurzoru Ondare Publikoa handitzearren
dohaintzan ematen dituen kopuruak.</p> <p>f) Jenderik gabeko etxebizitzaren kanona
likidatzearen ondoriozko diru-sarrerak,
Eusko Jaurlaritzak etxebizitza jenderik
gabeko etxebizitza deklaritzen duenean
–udalek deklaratu ezean– eta dagokion</p> | <p>3. Son recursos económicos afectos al Patrimonio
Público de Suelo:</p> <p>a) La cantidad que se consigne en los pre-
supuestos generales de la Administración
general de la Comunidad Autónoma del
País Vasco, en cada ejercicio económico
o presupuestario, para el cumplimiento
de las finalidades del Patrimonio Público
de Suelo.</p> <p>b) Los ingresos derivados de la administra-
ción o disposición de los bienes del Patri-
monio Público de Suelo, ya sea por cau-
sa de su transmisión, de alquiler o, en
general, del establecimiento de derechos
sobre ellos.</p> <p>c) Las cantidades ingresadas en concepto
de multas coercitivas y sanciones proce-
dentes del ejercicio por el Gobierno Vas-
co de las potestades tutelares, disciplina-
rias y sancionadoras previstas en esta
ley.</p> <p>d) Los créditos que tengan como garantía
hipotecaria los bienes incluidos en el
Patrimonio Público de Suelo.</p> <p>e) Las cantidades que sean donadas por
cualquier persona física o jurídica con
destino a incrementar el Patrimonio Pú-
blico de Suelo.</p> <p>f) Los ingresos derivados de la liquidación
del canon de vivienda deshabitada cuan-
do el Gobierno Vasco, en defecto de los
ayuntamientos, declare la vivienda des-
habitada y liquide el canon correspon-</p> |



kanona likidatzen duenean.

- g) Hiri-finken errentamendu-kontratuen ondorioz jarritako fidantzen zenbatekoaren % 80.
- h) Fidantzak jartzean izandako atzerapenengatik sortutako errekargu eta interesen zenbatekoa.

17. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurzoru Ondare Publikoko ondasunak xedatzeko egintzak

1. Lurzoru Ondare Publikoko ondasunen xedatzea, baldin horrek berekin badakar haien jabetza eskualdatzea edo haien gaineko eskubideak ezartzea, lege honekin bat etorritz hori posible denean, kostu bidezko lizitazio publikoaren bitartez egingo da orokorrean.
2. Jabari osoko besterentzeak egiteko lizitazio publikoko oinarrietan, gutxienez honako hauek zehaztu beharko dira beti:
 - a) Lizitaziorako gutxieneko prezioa.
 - b) Direnak direlako etxebizitza edo lokal babestuen prezioa edo errenta.
 - c) Eraikingintzako obrak exekutatzeko eta, lursailak ez badira orubetat hartzen, urbanizazio-obrak egiteko gehieneko epeak.

18. artikulua. Zuzeneko besterentzea eta doako besterentzeak edo berezko balioaren azpitik egintzoak

1. Lurzoru Ondare Publikoko ondasunak besterendu daitezke zuzenean, lizitazio publikorik gabe, eta erregelamendu bidez zehaztuko diren betekizunak eta baldintzak betez, honako kasu hauekoren bat gertatzen denean:
 - a) Administrazio publikoen arteko hitzarmenek edo administrazio publikoen eta sektore publikoko erakundeen arteko hitzarmenek eragin dutenean dena delako besterentzea.
 - b) Ondasun-eskuratzailea irabazi-asmorik ez duen eta onura publikoko deklaratura

diente.

- g) El 80 % del importe de las fianzas depositadas por causa de los contratos de arrendamiento de las fincas urbanas.
- h) El importe de los recargos e intereses por retrasos en el depósito de las fianzas.

Artículo 17. Actos de disposición de bienes del Patrimonio Público de Suelo de la Comunidad Autónoma del País Vasco

1. La disposición de los bienes incluidos en el Patrimonio Público de Suelo que implique la transmisión de su propiedad o el establecimiento de derechos sobre ellos, cuando sea posible conforme a esta ley, se realizará como regla general mediante licitación pública a título oneroso.
2. En todo caso, en las bases de la licitación pública para la enajenación en pleno dominio se contendrán, como mínimo, las siguientes determinaciones:
 - a) Precio mínimo de licitación.
 - b) Precio o renta de las viviendas o locales protegidos que resulten en su caso.
 - c) Plazos máximos para la ejecución de las obras de edificación, y, en su caso, de urbanización cuando los terrenos no tuvieran la consideración de solar.

Artículo 18. Enajenación directa y enajenaciones gratuitas o por debajo de valor

1. Podrán enajenarse directamente, sin necesidad de licitación pública, los bienes del Patrimonio Público de Suelo, con los requisitos y condiciones que se determinen reglamentariamente, cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:
 - a) Cuando la enajenación se derive de convenios entre administraciones públicas o entre estas y entes del sector público.
 - b) Cuando el adquirente sea una entidad sin ánimo de lucro, declarada de utilidad





- dagoen entitate bat denean eta babes publikoko araubideren bateko etxebizitzak eraikitzea sustatzen duenean.
- c) Titulartasun publikoko etxebizitza-erakinen edo sektore publikoko erakundeenen kasuan, eskarigileak haien legezko okupatzaileak direnean.
- d) Aurreko artikuluan aurreikusitako prozedura esleitu gabe geratzen denean; kasu horretan, besterentzea zuzenean egin ahal izango da, gehienez ere urtebeteko epean, baldintza-agiri berari jarraituta. Besterentze-prezioa ezingo da baxuagoa izan, inoiz ere, esleitu gabe geratu den prozeduran lizitazio-tipo modura aurreikusitakoa baino.
- e) Ondasunak babes publikoko etxebizitzetara atxiki gabeko lokalak edo eranskinak direnean eta etxebizitzaren sustapen publikorako eskumena baliatuz eraikita daudenean, betiere Euskadiren ondareari buruzko legeriaren arabera beharrezkoa den baimenarekin.
2. Lurzoru Ondare Publikoko ondasunak doan edo beren balioaren azpitik laga daitezke, erregelamendu bidez zehaztuko diren betekizunak eta baldintzak betez, honako kasu hauetakoren bat gertatzen denean:
- a) Lagapen-hartzailea administrazio publiko bat edo sektore publikoko erakunde bat denean, eta xedea, berriz, lege honetako 15. artikuluan jasota datozenetakoa edozein.
- b) Eskarigilea irabazi-asmorik ez duen eta onura publikoko deklaraturik dagoen erakunde bat denean eta lursailak etxebizitza babestuek eraikitzeko direnean.
- c) Lagapen-hartzailea kasuan kasuko etxebizitzaren legezko okupatzailea denean eta ordezkari etxebizitza emateko xedez administrazio publiko jarduleak behar bezala onarturiko erabaki baten bidez lortua denean etxebizitza hori.
3. Kasu guztietan, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da aurretik.
- pública, que promueva la construcción de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública.
- c) En el caso de edificios de viviendas de titularidad pública o de entes del sector público, cuando los peticionarios sean sus ocupantes legales.
- d) Cuando el procedimiento previsto en el artículo anterior quede desierto, en cuyo caso la enajenación podrá llevarse a cabo de manera directa dentro del plazo máximo de un año y con arreglo al mismo pliego de condiciones. En ningún caso el precio de la enajenación podrá ser inferior al previsto como tipo de licitación en el procedimiento que ha quedado desierto.
- e) Cuando se trate de locales y anejos no vinculados a viviendas de protección pública y construidos al amparo de la competencia en materia de promoción pública de vivienda, siempre con la autorización que se precise con arreglo a la legislación de patrimonio de Euzkadi.
2. Podrán cederse gratuitamente o por debajo de su valor los bienes del Patrimonio Público de Suelo, con los requisitos y condiciones que se determinen reglamentariamente, cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:
- a) Que el cesionario sea una administración pública o ente del sector público, y el destino, cualquiera de los contemplados en el artículo 15 de esta ley.
- b) Que el peticionario sea una entidad sin ánimo de lucro declarada de utilidad pública y el destino de los terrenos sea la construcción de viviendas protegidas.
- c) Que el cesionario sea ocupante legal de la vivienda afectada y obtenida en virtud de acuerdo de realojo debidamente aprobado por la administración pública actuante.
3. En todos los supuestos será necesaria la autorización previa del Consejo de Gobierno.





V. KAPITULUA
BABES PUBLIKOKO BIZITEGIETARAKO SISTEMA:
BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ETA ZUZKI-
DURA BIZITOKIEN DEFINIZIOA ETA MOTAK

19. artikulua. Babes publikoko bizitegietarako sistema

Administrazio publikoek, bakoitzak bere esku-men-esparruan, sustatu egingo dituzte lege honetan aipatzen diren babes publikoko etxebizitzak, halako jarduketak bultzatzeko neurri ekonomiko, fiskal, hiri-gintzako eta bestelakoen bidez, zeinak erregelamendu bidez zehaztuko baitira.

Bizitegi-parke babestua planifikatu, programatu, proiektatu, sustatu edo exekutatzeko lanetan, esku-hartze publikoa babes publikoko bizitegietarako sistema gisa eratzen da. Sistema hori osatzen duten balibideak hauek dira:

- a) Babes publikoko etxebizitzak.
- b) Zuzkidura-bizitokiak.

20. artikulua. Babes publikoko etxebizitzak

1. Babes publikoko etxebizitza izango dira lege honetan eta lege hau garatzeko araudian etxebizitzaren bizigarritasun, kalitate, azalera, erabilera eta prezioari edo errentari buruz ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztenak eta, aldi berean, halako kalifikazioa eman dienak etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak edo, udal-araubide tasatuko etxebizitzak baldin badira, kasuan kasuko udalak.
- 2 (lehen 3). Araubide juridikoaren, onura ekonomikoaren eta jabetza-eskubidea mugatzearen ondorioetarako, etxebizitza babestuaren kontzeptuaren barruan sartuko dira behin betiko kalifikazioan ondorio horietarako agertzen diren beste elementu guztiak, hala nola garajeak, trastelekuak, lokalak eta gainerako elementu parekarriak.
3. Etxebizitza babestuen ezaugarri teknikoak betetzen dituztenean, etxebizitza libreek ere jaso dezakete babestuen kalifikazioa baldin eta haien sustatzaileak edo titularrak hala eskatzen badu dagozkion laguntzak jaso ahal izatearren, etxebizitza horiek etxebizitza babestuen prezioan

CAPÍTULO V
SISTEMA RESIDENCIAL DE PROTECCIÓN PÚBLICA: DEFINICIÓN Y TIPOS DE VIVIENDAS DE PROTECCIÓN PÚBLICA Y ALOJAMIENTOS DOTACIONALES

Artículo 19. Sistema residencial de protección pública

Las administraciones públicas, dentro de su respectivo ámbito de competencias, fomentarán la promoción de viviendas de protección pública a las que se refiere la presente ley, mediante el establecimiento de medidas económicas, fiscales, urbanísticas y de cualquier otra naturaleza que favorezcan tales actuaciones, que se determinarán reglamentariamente.

La intervención pública en cuanto a la planificación, programación, proyección, promoción o ejecución del parque residencial protegido se configura en el sistema residencial de protección pública constituido por los siguientes recursos:

- a) Viviendas de protección pública.
- b) Alojamientos dotacionales.

Artículo 20. Viviendas de protección pública

1. Tendrán la consideración de viviendas de protección pública las viviendas que cumplan los requisitos y condiciones de habitabilidad, calidad, superficie, uso y precio o renta establecidos por la presente ley y su normativa de desarrollo y se califiquen como tales por el departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, o por el ayuntamiento correspondiente cuando se trate de viviendas de régimen tasado municipal.
- 2 (antes 3). Se considerarán también comprendidos en el concepto de vivienda protegida, a efectos del régimen jurídico, beneficios económicos y limitaciones del derecho de propiedad, todos aquellos elementos, como garajes, trasteros, locales y demás elementos asimilables, que a estos efectos se incluyan o consten en la correspondiente calificación definitiva de vivienda protegida.
3. Siempre que se ajusten a las características técnicas de las viviendas protegidas, la calificación también podrá extenderse a la vivienda libre cuando su promotor o promotora o titular lo solicite para poder percibir las ayudas correspondientes al objeto de su venta, arrendamien-



edo errentan saldu, alokatu edo lagatzeko.

21. artikulua. Babes publikoko etxebizitza-motak

1. Babes publikoko etxebizitzak bi motatakoak izan daitezke prezioaren edo errentaren arabera, etxebizitza legez okupatu nahi dutenek bete behar dituzten baldintzen arabera eta daukaten etxebizitza-premiaren arabera:
 - a) Babes sozialeko etxebizitza.
 - b) Etxebizitza tasatua, araubide autonomiko edo munizipalekoa.
2. Eusko Jaurlaritzak, erregelamendu bidez, babes sozialeko etxebizitzaren eta araubide autonomiko etxebizitza tasatuen ezaugarri hauek garrantzitsuak ditu, besteak beste: dagokien prezioa edo errenta, etxebizitza legez okupatu nahi dutenek bete behar dituzten baldintzak, finantza-neurriak eta etxebizitzaren araubide juridikoa.
3. Udal-etxebizitza tasatuen sustapenak babes sozialeko etxebizitzaren ezaugarri berak eta araubide juridiko bera izango dituzte. Berezitasunak, edonola ere, lege honetan bertan, lege honen erregelamendu bidezko garapenean eta udalek argitaratzen dituzten tokiko ordenantzetan ezarriko dira, eta, gutxienez, zehaztapen hauek jaso beharko dituzte:
 - a) Etxebizitzaren, lokalen eta eranskinen ezaugarriak, zehatz-mehatz beteta babes sozialeko etxebizitzaren arau teknikoak eta bizigarritasunari buruzkoak.
 - b) Udal-titulartasuneko etxebizitzaren, lokalen eta eranskinen araubide juridikoa, zehaztuta haien kalifikazioa, prezioak, errentak, lurzoruen eta urbanizazioaren gehieneko kostuei dagokien ehunekoa, esleitzeko modua eta zehaztu beharreko beste edozer.
 - c) Etxebizitza, eranskin edo lokal horien esleipena lor dezaketenean bete beharko dituzten baldintzak.

to o cesión al precio o renta de la vivienda protegida.

Artículo 21. Tipos de vivienda de protección pública

1. Las viviendas de protección pública, en función de su precio o renta, de los requisitos que deben cumplir los interesados o interesadas en el acceso a la ocupación legal de la vivienda y de las circunstancias de su necesidad de vivienda, podrán ser de los siguientes tipos:
 - a) Vivienda de protección social.
 - b) Vivienda tasada de régimen autonómico o municipal.
2. El Gobierno Vasco desarrollará reglamentariamente, entre otros extremos, las características de las viviendas de protección social y tasadas de régimen autonómico en cuanto a su precio o renta correspondiente, los requisitos que deben cumplir los interesados en el acceso a la ocupación legal de la vivienda, las medidas financieras y el régimen jurídico de las viviendas.
3. Las promociones de viviendas tasadas municipales tendrán las mismas características y régimen jurídico que las viviendas de protección social, con las especialidades que se establezcan en esta ley, en su desarrollo reglamentario y en las ordenanzas locales que los ayuntamientos publiquen al efecto, y que deberán contemplar, como mínimo, las siguientes determinaciones:
 - a) Características de las viviendas, locales y anejos de que se trate, con cumplimiento estricto de la normativa técnica de las viviendas de protección social y de habitabilidad.
 - b) Régimen jurídico de las viviendas, locales y anejos de titularidad municipal, con indicación de su calificación, precios, rentas, porcentaje correspondiente a los costes máximos de suelo y urbanización, modo de adjudicación y cualesquiera otros aspectos que resulten procedentes.
 - c) Requisitos que deban cumplir las personas que puedan resultar adjudicatarias de las citadas viviendas, anejos o locales.



4. Salerosketa- eta errentamendu-kontratu pribatu-
etan agertuko da etxebizitza bakoitza babes
publikoko zein modalitatetako den.

22. artikulua (berria). Babes publikoko etxebizitza- zedearen xedea

1. Etxebizitza babestuak ohiko egoitza iraunkorra
izateko erabiliko dira. Ez da inoiz ere onartuko
bigarren bizileku izateko erabiltzea. Esleitu edo
eskualdatzen direnetik gehienez sei hilabetera
okupatu beharko dira, eta erregelamendu bidez
zehazten diren baldintzetan.
2. Egoitza iraunkortzat hartuko da urte natural
osoan bizitzeko benetan erabiltzen den tokia,
salbu etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko
Jaurlaritzako sailak emandako berariazko bai-
mena badago, erregelamendu bidez zehaztuko
diren arrazoiengatik.

23. artikulua (lehen 22.a). Zuzkidura-bizitokiak

1. Zuzkidura-bizitokitaz joko da bertan bizitzeko
egokia den eraikina, ekipamendu edo zuzkidura
gisa eratzen dena eta pertsonen edo bizikidetz-
unitateen bizileku-premia aldi baterako konpon-
tzeko erabiltzen dena, errenta edo kanon baten
truke. Bertan biziko direnei bizileku batek ohiko
premia pertsonalak asetzeko eduki behar dituen
lekua eta instalazioak eskainiko dizkie, lege
honetan eta lege hau garatzeko arauetan eza-
rritako baldintzak betez.
2. Zuzkidura-bizitokiak ez dira etxebizitza babestu
gisa kalifikatuko, eta honako leku hauetako
batean kokatu ahal izango dira:
 - a) Hirigintza-plangintzak zuzkidura-
bizitokitarako kalifikatutako lurzoruetan.
 - b) Hirigintza-plangintzak komunitate-
ekipamendutarako edo zuzkidura-bizitoki
gisa erabiltzea ahalbidetzen duen beste
ekipamenduren baterako kalifikatutako
lurzoruetan.
 - c) Lehendik dauden titulartasun publikoko
eraikin edo lokaletan, baldin eta erabi-
lera horretara zuzentzen badira.

4. La pertenencia de la vivienda a cada modali-
dad de protección pública se hará constar en
los contratos privados de compraventa y arren-
damiento.

Artículo 22 (nuevo). Destino de las viviendas de protección pública

1. Las viviendas protegidas se destinarán a domi-
cilio habitual y permanente. En ningún caso se
admitirá el destino para segunda residencia.
Deberán ser ocupadas en un plazo máximo de
seis meses a partir de la adjudicación o tran-
smisión y en las condiciones que reglamentaria-
mente se determinen.
2. Se entenderá por domicilio permanente el que
constituya el lugar de residencia efectiva du-
rante todo el año natural, salvo autorización
expresa al efecto otorgada por el departamen-
to competente en materia de vivienda del Go-
bierno Vasco, por causas que serán determina-
das reglamentariamente.

Artículo 23 (antes 22). Alojamientos dotacionales

1. Se entenderá por alojamiento dotacional la
edificación residencial apta para ser habitada,
que se configura como equipamiento o dota-
ción, destinada a resolver de forma transitoria y
mediante abono de renta o canon la necesidad
de habitación de personas o unidades de convi-
vencia. Cumplirá los requisitos establecidos en
esta ley y su normativa de desarrollo para ofre-
cer a las personas que vayan a habitar en ella
el espacio y las instalaciones necesarias que
satisfagan sus necesidades personales ordina-
rias de habitación.
2. Los alojamientos dotacionales no serán objeto
de su calificación como vivienda protegida, y
podrán situarse, alternativamente:
 - a) Sobre suelos calificados por el planea-
miento urbanístico para tal finalidad de
alojamiento dotacional.
 - b) Sobre suelos que el planeamiento urba-
nístico califique de equipamiento comu-
nitario u otro equipamiento que permita
el uso de alojamiento dotacional.
 - c) En edificaciones o locales preexistentes
de titularidad pública que se destinan al
efecto.



3. Etxebizitza bat legez okupatzeko zailtasunak dauzkaten aldi baterako bizitokia eskaintzeko erabiliko dira, hala nola gazteei, immigrantei, etxebizitza partekatua erabiltzeko eskubidea galdu duten bananduei edo dibortziatuei, hirigintzako eragiketak direla-eta beste bizitoki baten zain daudenei eta antzeko beste batzuei. Erabili ahal izango dira, halaber, aldi baterako bizitokia eskaintzeko bai gizarteratzen ari diren kolektiboetako pertsoneri, bai babes berezia behar dutenei, hala nola genero-indarkeria jasan duten emakumei, adinekoei, etxegabeei, desgaitasun fisiko, psikiko edo intelektuala dutenei eta antzeko egoeran dauden beste batzuei.
4. Zuzkidura-bizitokiak haien erabiltzaileek aldi batean okupatzeko izango dira. Haien ezaugarriak eta araubide juridikoa lege honetan eta lege hau garatzeko onartzen diren xedapenetan zehaztutakoak izango dira, eta, besteak beste, zehaztu beharko dituzte horrelako bizitokiak okupatzeko baldintzak eta modua, bai eta okupazioaren hasierari eta bukaerari buruzko arauak ere. Edonola ere, ezin izango zaizkie inoiz ere aplikatu ez nahitaezko luzapena, ez hiri-errentamenduei buruzko legeriako gainerrako zehaztapenak.

Udal-titulartasuneko zuzkidura-bizitokiak arautzen dituzten udal-ordenantzetan jasota egon beharko dute aurreko artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako zehaztapenek gutxienez, egokitu beharrekoa egokiturik.
5. Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta udalek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, premia duten gizarte-sektoreentzat arian-arian zuzkidura-bizitokiaren udalez gairikoa sare bat eratzeko.
6. Kontuan hartuta zuzkidurakoak direla, zuzkidura-bizitokie ez zaizkie aplikatuko hirigintzako legeetan etxebizitzak planifikatzeko eta kudeatzeko jasota dauden eraikigarritasun-mugak, ez eta lursailetan eta etxebizitza babestuetan erreserbatu beharreko gutxienezko estandarrak ere. Edonola ere, dagokion araudi teknikoa aplikatu behar zaienean, etxebizitzaren bizitegi-erabilera dutela joko da.

24. artikulua (lehen 23.a). Lurzoria lortzea, zuzkidura-bizitokiak eraikitzeak

3. Estarán destinados al alojamiento temporal de personas con dificultades de acceso a la ocupación legal de una vivienda, como jóvenes, inmigrantes, personas separadas o divorciadas que hayan perdido el derecho al uso de la vivienda compartida, personas pendientes de realojamiento por operaciones urbanísticas y otros similares. Podrán destinarse igualmente al alojamiento temporal de personas de colectivos en proceso de reinserción o de quienes requieran de una especial protección, como mujeres víctimas de violencia de género, personas mayores, personas sin hogar, discapacitados físicos, psíquicos e intelectuales y otros en similares circunstancias.
4. Los alojamientos dotacionales se ocuparán por sus usuarios o usuarias con carácter temporal. Sus características y régimen jurídico serán los contemplados en la presente norma legal y disposiciones que se dicten en su desarrollo y que establecerán, entre otras determinaciones, los requisitos y modo de acceso, así como normas sobre el inicio y terminación de la ocupación, sin que en ningún caso les resulte de aplicación la prórroga forzosa ni demás precisiones de la legislación de arrendamientos urbanos.

Las ordenanzas locales que regulen los alojamientos dotacionales de titularidad municipal contendrán, como mínimo y con las adaptaciones pertinentes, las determinaciones previstas en el apartado 3 del artículo anterior.
5. La Administración de la Comunidad Autónoma y los ayuntamientos podrán establecer convenios a los efectos de la conformación progresiva de una red supramunicipal de alojamientos dotacionales con destino a los sectores sociales necesitados.
6. En atención a su propia naturaleza dotacional, a los alojamientos dotacionales no les serán de aplicación ni los límites de edificabilidad ni los estándares mínimos de reserva de terrenos y de vivienda protegida previstos en la legislación urbanística para la planificación y gestión de viviendas, aun cuando tendrán la condición de uso residencial de vivienda al objeto de la aplicación a ellos de la normativa técnica correspondiente.

Artículo 24 (antes 23). Obtención de suelo para la construcción de alojamientos dotacionales



1. Udal-plangintzan zuzkidura-bizitokitarako hornidura publiko modura kalifikaturik dauden lursailak bi eratarata lor daitezke, halakoak ezartzeko ardurua duen administrazioaren alde: jarduketa integratuetan sartuta edo haiei atxikita baldin badaude, derrigor eta doan lagaz; edo, jarduketa integratuetan sartu gabe eta haiei atxiki gabe badaude, nahitaez desjabetuz. Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan jasotako baldintzak betetzen badituzte, lursail horien gainean jasotzen diren eraikinak zuzkidura-bizitokitzat joko dira.
 2. Aurreko paragrafoan zehaztutako kasuetan, lursailak eta haien gainean jasotzen diren eraikinak dagokion lurzoru-ondare publikora bilduta geratuko dira eta zerbitzu publiko bati atxikita dauden jabari publikoko ondasuntzat hartuko dira. Ezin izango dira eskualdatu; hala ere, zuzenean laga ahal izango dira etxebizitzarlotako eskumenak dauzkaten administrazio publikoen artean, edo administrazio horien eta mendeen dituzten sektore publikoko entitateen artean, lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan jasotako kasuetan eta baldintzetan. Zuzkidura-bizitokiak lurzoruaren titularrak den administrazioak edo erakunde publikoak eraiki eta kudea ditzake, zuzenean, edo hirugarren batzuei emakida-eskubidea eman, eraiki eta kudea ditzaten.
 3. Artikulu honetako aurreko paragrafoetan jartzen duenaz gainera, eta salbuespenez, behin-behinean zuzkidura-bizitokitarako erabil daitezke titulartasun pribatuko edo publikoko eraikinak, eraikin-zatiak edo lokalak ere, baldin eta une jakin bateko edo egoeraren arabera premiak direla-eta jendeari bitarte batean ordeztuko etxebizitza edo bizitegia emateko badira, eta, betiere, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoak behar den deklarazioa eginda. Behin-behineko erabilera horien udal-baimena lortzeko ez da beharrezkoa izango informazio publikoko izapidea, ezta beste konpromiso batzuk frogatzea ere, baizik eta, bakarrik, jabeak onartzea etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoak egindako deklarazioa. Dena dela, prekarioan emandakotzat joko da, eta eraikina uzteko betebeharra egongo da, inolako kalte-ordainik hartzeko eskubiderik gabe, hirigintza-araudian ezarritako eran.
1. Los terrenos calificados por el planeamiento municipal como dotación pública con destino a alojamientos dotacionales serán obtenidos, a favor de la administración responsable de su implantación, bien por cesión obligatoria y gratuita en el supuesto de incluirse o adscribirse a actuaciones integradas, o bien por expropiación forzosa en el supuesto de no figurar incluidos ni adscritos a estas. Las construcciones que se edifiquen en ellos, si cumplen las condiciones establecidas por esta ley y su normativa de desarrollo, tendrán la consideración de alojamientos dotacionales.
 2. En los supuestos señalados en el apartado anterior, los terrenos y la edificación que se construya sobre ellos quedarán incorporados al patrimonio público de suelo correspondiente y tendrán la condición de bienes demaniales afectos a un servicio público. No podrán ser objeto de transmisión, sin perjuicio de la posibilidad de su directa cesión entre administraciones públicas con competencias en materia de vivienda, así como entre estas y las entidades del sector público dependientes de ellas, en los supuestos y con los requisitos previstos en esta ley y su normativa de desarrollo. La administración o el ente público titular del suelo podrá construir y gestionar directamente los alojamientos dotacionales o podrá otorgar derecho concesional a terceros para su construcción y gestión.
 3. Con independencia de lo previsto en los apartados precedentes de este artículo, y con carácter excepcional, podrán destinarse también a usos provisionales de alojamiento dotacional las edificaciones o partes de estas y los locales, todos ellos de titularidad privada o pública, que, contando para ello con la debida declaración efectuada por el órgano competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, atiendan a necesidades puntuales o coyunturales de realojo o residencia. La autorización municipal de estos usos provisionales no precisará de trámite de información pública, ni de la acreditación de otros compromisos, sino únicamente la aceptación, por parte de la propiedad, de la declaración del órgano competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco. Se entenderá, en todo caso, concedida en precario, y con la obligación de desalojo sin derecho alguno a indemnización en los términos previstos en la normativa urbanística.



VI. KAPITULUA
BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ETA ZUZKI-
DURA BIZITOKIEN ARAUBIDE JURIDIKOA

1. ATALA
PREZIOA ETA ERRENTA EDO KANONA

25. artikulua (lehen 24.a). Babes publikoko etxebizitzaren prezioa edo errenta eta zuzkidura-bizitokiaren errenta edo kanona

1. Babes publikoko etxebizitzaren eta atxikitako eranskinen erreferentziako prezioa edo errenta, baita zuzkidura-bizitokiaren kanonaren zenbatekoa ere, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurjaritzako saileko sailburuaren agindu bidez ezarriko dira, duten azalera kontuan hartuta. Ondorio horietarako, etxebizitza- edo bizitoki-mota ere kontuan hartuko da, baita kokapen geografikoa, edukitza-araubidea, kontserbazio-egoera, antzinatasuna eta arrazoituta ezarritako beste alderdi batzuk ere.
2. Era berean, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurjaritzako saileko sailburuaren agindu bidez, babes publikoko etxebizitza eta araubide autonomikoko etxebizitza tasatuak esleitzeko eskatzen duten pertsonen edo bizikidetzak unitateen gehieneko finantza-ahalmenaren zenbatekoak ezarriko dira. Errenta estandarizatuari dagokionez, kontuan izan behar da Familiari Laguntzeko 13/2008 Legeko 6. artikuluan ezarritakoa.

26. artikulua (lehen 25.a). Babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak gerora eskualdatu edo erabiltzeko lagaz gero ordaindu beharreko prezioa eta errenta edo kanona

1. Babes publikoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren prezioak eta errentak edo kanonak eguneratzeko irizpideak erregelamendu bidez garatuko dira. Babesak irauten duen legezko epean, etxebizitza babestuen lehenengo eta ondorengo eskualdatzeetako edozein xedatze- edo alokatze-egintzak gehieneko salmenta- edo errenta-prezio bat izango du, zeina lege hau garatzen duen araudiaren bidez zehaztuko baita.
2. Debekaturik daude gainprezioa eta prima, baita aplikatzekoak diren arauen arabeko prezio, errenta edo kanona aldatzen duen kopuru oro

CAPÍTULO VI
RÉGIMEN JURÍDICO DE LAS VIVIENDAS DE PRO-
TECCIÓN PÚBLICA Y LOS ALOJAMIENTOS DO-
TACIONALES

SECCIÓN 1.ª
PRECIO Y RENTA O CANON

Artículo 25 (antes 24). Precio o renta de las viviendas de protección pública y renta o canon de los alojamientos dotacionales

1. El precio o la renta de referencia de las viviendas de protección pública y sus anejos vinculados, así como el importe del canon de los alojamientos dotacionales, se establecerán por orden del consejero o consejera del departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco en función de la superficie de aquellos. A estos efectos se considerará también el tipo de vivienda o alojamiento, su ubicación geográfica, su régimen de tenencia, estado de conservación, antigüedad y otros aspectos que se establezcan motivadamente.
2. Asimismo, por orden del consejero o consejera del departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco se establecerán los importes de la capacidad financiera máxima de las personas o unidades de convivencia demandantes de la adjudicación de viviendas de protección pública y de tasadas de régimen autonómico. Se deberá tener en cuenta lo establecido en el artículo 6 de la Ley 13/2008, de Apoyo a las Familias, en lo relativo a la renta estandarizada.

Artículo 26 (antes 25). Precio y renta o canon en posteriores transmisiones o cesiones de uso de las viviendas de protección pública y alojamientos dotacionales

1. Se desarrollarán reglamentariamente los criterios de actualización de las rentas o cánones de las viviendas de protección pública y alojamientos dotacionales. Durante el período legal de protección, cualquier acto de disposición o de arrendamiento de viviendas protegidas en primeras o posteriores transmisiones estará sujeto a un precio de venta o renta máximo, que será fijado en la normativa de desarrollo de la presente ley.
2. Se prohíbe el sobreprecio, la prima o la percepción de cualquier cantidad que altere el precio, renta o canon que corresponda de acuerdo con



jasotzea. Deusezak izango dira, erabat, kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauetan baimendurik dauden gehieneko kopuruak baino prezio, errenta edo kanon handiagorik ezartzen duten klausulak eta estipulazioak.

3. Aurreko paragrafoan jasota dauden kasu horietan, higiezina eskualdatzeko edo haren erabilera lagatzeko gainerako baldintzak betetzen baldin badira, eskualdaketa edo erabilera-lagatze hori legezko gehieneko prezioan egin dela iritziko zaio, eta kontratuaren gainerako zatiak baliozkotzat joko dira. Behar baino gehiago ordaindu duen eskuratuzaileak edo okupatuzaileak dirua itzultzea erreklama dezake, eta, gainera, ikusi egin beharko da beste erantzukizunik badagoen, lege honetako X. kapituluaren arau-hausteei eta zehapenei buruzkoan xedaturik dagoenaren arabera.

27. artikulua (lehen 26.a). Babes publikoko etxebizitzetarako lurzoruen prezioa

1. Babes publikoko etxebizitzak sustatzeko lurzoruen prezioan, ezin dira gaintitu dagozkien babes-arauetan bai lurzorurako eta bai urbanizaziorako jarrita dauden gehieneko jasanarazpen-balioak. Lege honetako 21. artikuluan zehaztu diren etxebizitza-mota guztietan bete beharko da arau hau.
2. Gehieneko jasanarazpen-balio horiek gehieneko prezio-muga batzuk dira, bizitegiarako hirigintza-erakigarritasun babestua duten partzelen kostu bidezko eskualdatzeetarako jartzen direnak. Gai honetan indarrean dagoen legerian xedaturikoaren arabera halako eskualdatzeak islatzen diren egintza eta kontratu guztien eskritura publikoetan jasoko dira gehieneko prezio-muga horiek.

2. ATALA (lehen 3.a) BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN KALIFIKAZIOA

28. artikulua (lehen 29.a). Babes publikoko gisa kalifikatzea

1. Etxebizitza bat babes publikoko etxebizitzatzat har dadin, halakoentzat jarrita dauden onurak lor ditzakeelarik eta duen araubidearen mugak beretzen dituelarik, beharrezkoa izango da etxebizitza babestuaren kalifikazioa lortzea. Atxiki gabeko eranskinak edo kalifikatu gabeko lokalak ez dira babestutzat hartuko, eta, hortaz,

las normas aplicables. Serán nulas de pleno derecho las cláusulas y estipulaciones que establezcan precios, rentas o cánones superiores a los máximos que autorice la normativa aplicable en cada caso.

3. En los supuestos previstos en el apartado anterior, se entenderá que la transmisión o cesión de uso se ha realizado al precio máximo legalmente permitido, considerándose válido el resto del contrato, si se cumplen los demás requisitos para la transmisión o cesión de uso del inmueble. El adquirente u ocupante que haya abonado las cantidades indebidas podrá reclamar su reintegro, sin perjuicio de la responsabilidad que corresponda a tenor de lo dispuesto en el capítulo X, de infracciones y sanciones, de la presente ley.

Artículo 27 (antes 26). Precio del suelo con destino a vivienda de protección pública

1. El precio de los suelos que se destinen a la promoción de vivienda de protección pública, en cualquiera de sus tipologías relacionadas en el artículo 21 de la presente ley, deberá respetar los valores máximos de repercusión tanto de suelo como de urbanización establecidos por sus normativas protectoras respectivas.
2. Estos valores máximos de repercusión se establecen como límite máximo de precio en las transmisiones onerosas de parcelas con edificabilidades urbanísticas residenciales protegidas. Esta condición de límite máximo de precio se hará constar en las escrituras públicas de todos los actos y contratos en los que se reflejen las citadas transmisiones de conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente en la materia.

SECCIÓN 2.ª (antes 3.ª) CALIFICACIÓN DE VIVIENDAS DE PROTECCIÓN PÚBLICA

Artículo 28 (antes 29). Calificación de protección pública

1. Para que una vivienda sea reconocida como vivienda de protección pública, pudiendo acceder por ello a los beneficios dispuestos para ella y asumiendo las limitaciones propias de su régimen, será necesario obtener la debida calificación de vivienda protegida. Los anejos no vinculados o los locales que no estén califica-



libretzat joko dira lege honen eta lege hau gartzeko arauen ondorioetarako.

2. Kalifikazioa administrazio-deklarazio bat da, zeinaren bidez etxebizitza, eranskin edo lokal batek, banaka edo besterekin batera sustapen batekoa izanez, dagokion babes publikoko araubideak dituen onurak lortzen baititu eta haren mugak beretzen.
3. Babes publikoko etxebizitzak eta haien eranskinak kalifikatzeko administrazio-prozeduran bi fase bereizten dira:
 - a) Behin-behineko kalifikazioa. Kalifikazio hori emateko, eskumena duen administrazioak egiaztatzen du proiektuak betetzen duela etxebizitza babestuei buruz indarrean dagoen araudia, eta espresuki edo isiltasunaren bidez kalifikazio hori eman izanak ahalmena ematen dio interesdunari finantziario kualifikatua eskatzeko.
 - b) Behin betiko kalifikazioa. Horren bidez, Administrazioak aitortzen du, egiaztatu ondoren, eraikitako errealitatea behin-behineko kalifikazioa lortu zuen proiektuaren arabera dela, edo proiektuari behar bezala baimenduta egindako aldaketen arabera.

29. artikulua (lehen 30.a). Kalifikazioaren iraupena

1. Babes publikoko etxebizitzek eta haien eranskinak, tipologia edo sustapena edozein dela ere, babes publikoko kalifikazio iraunkorra izango dute, lege honetan ezarritako salbuespenetan izan ezik.
2. Nolanahi ere, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak erregelamendu bidez ezarritako betekizunen, baldintzen eta prozeduraren arabera, kalifikazioa kendu ahal izango zaie, edo, hala badagokio, urte-kopurua zehaztuta kalifikazio-epe bat ezarri, honelako etxebizitzak badira:
 - a) Hirigintza- edo desjabetze-jarduketa batek eragindako etxebizitza libre baten titularrari ordezko etxebizitza izateko eskubidea bermatze aldera jabetzan esleitutako babes publikoko etxebizitzak.

dos no tendrán la condición de protegidos, considerándose, por tanto, libres a los efectos de esta ley y su normativa de desarrollo.

2. La calificación es la declaración administrativa por la cual una vivienda, anejo o local, de forma individual o perteneciendo a una promoción de forma conjunta, tiene acceso a los beneficios y asume las limitaciones propias del régimen de protección pública correspondiente.
3. En el procedimiento administrativo de calificación de viviendas de protección pública y sus anejos se distinguen dos fases:
 - a) Calificación provisional, para cuyo otorgamiento la administración competente verifica que el proyecto cumple con la normativa vigente para la vivienda protegida y cuya concesión, expresa o por silencio, faculta al interesado para solicitar la concesión de financiación cualificada.
 - b) Calificación definitiva, a tenor de la cual la Administración reconoce, previa comprobación, que la realidad construida se atiene al proyecto que obtuvo la calificación provisional o a modificados de dicho proyecto que hubieren sido debidamente autorizados.

Artículo 29 (antes 30). Duración de la calificación

1. Las viviendas de protección pública y sus anejos, sea cual fuere su tipología o promoción, tendrán la calificación permanente de protección pública, con las salvedades previstas en esta ley.
2. No obstante, y con los requisitos, condiciones y procedimiento que se establezcan reglamentariamente por el departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, podrán ser objeto de descalificación o, en su caso, de establecimiento de un plazo de calificación con la fijación del número de años de esta, en los siguientes supuestos:
 - a) Las viviendas de protección pública adjudicadas en régimen de propiedad para garantizar el derecho al realojo al titular de una vivienda libre afectada por una actuación urbanística o expropiatoria.



- b) Berroneratze-, berritze- edo birgaitze-prozesu bat dela-eta babes publikoko kalifikazioa borondatez hartu duten etxebizitza, eranskin eta merkataritza-lokalak.
3. Behar bezala justifikatutako arrazoirik ezean, artikulua honetako aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera kalifikazioa kentzea edo kalifikazioarentzat iraunaldi berri bat ezartzea baimentzen duen aginduak baldintzatuz jarriko du dena delako higiezinaren kontura jasotako laguntza guztiak edo batzuk itzuli beharra, laguntza horiek erregelamendu bidez ezarri bezala eguneratuta edo zuzenduta, eta haien zenbatekoa zehaztuta.

30. artikulua (lehen 31.a). Kalifikazioa ematea eta kalifikazio-agiriaren gutxieneko edukia

1. Etxebizitza bati eta haren eranskinei babestu kalifikazioa ematea edo ukatzea, zer dagokion, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaur-laritzako sailak erabakiko du, edo dagokion udalak, udal-etxebizitza tasatuak badira.
2. Horretarako, eta aipatutako behin-behineko eta behin betiko kalifikazio bakoitzerako, artikulua honetako aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera dagokion administrazioak hiru hilabete epea izango du ebazpena emateko, agiri guztiak aurkezten direnetik. Hala ere, eskumena duen organoak, arrazoituta, erabaki dezake epea beste bi hilabetez luzatzea.
3. Baldin eta legez ezarritako hiru hilabete epea edo, hala badagokio, luzapena amaitu eta artean ebazpenik eman ez bada, iritziko zaio kalifikazioa eman egin dela administrazio-isiltasun positiboa bitarteko. Hala eta guztiz ere, isiltasunaren bidez ezingo da eskuratu ahalmen edo eskubiderik baldin eta kalifikazioa lortzeko legez ezarritako baldintzak betetzen ez badira.
4. Bai behin-behineko kalifikazioaren agirian, bai behin betikoarenean, honako eduki hauek jaso beharko dira gutxienez:
- a) Sustatzailearen identitatea, hartan sartu-

- b) Las viviendas, anejos y locales comerciales que se hayan acogido voluntariamente a la calificación de protección pública como consecuencia de un proceso de regeneración, renovación o rehabilitación.

3. Salvo causa justificada debidamente motivada, la orden que, en su caso, autorice, conforme a lo previsto en el apartado anterior de este artículo, la descalificación o el establecimiento de un nuevo plazo de duración de la calificación fijará como condición la necesidad de devolución de todas o parte de las ayudas percibidas, actualizadas o corregidas según se establezca reglamentariamente, por cuenta del inmueble en cuestión, y concretando el importe de aquellas.

Artículo 30 (antes 31). Concesión de la calificación y contenido mínimo del documento de calificación

2. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako fidantza jarri beharrik ez dute izango administrazio publikoek, haien erakunde autonomoek, zuzenbide publikoko entitateek eta administrazioen mendeko gainerako erakunde publikoek eta alokatzeetan bitartekari-lana egiten duten titulartasun publikoko entitateek, errentari gisa jarduten direnean babes publikoko etxebizitzaren eta haiei atxikitako eranskinen errentamendua dela-eta, edo onura publikoko edo interes sozialeko deklaraturako irabazi-asmorik gabeko entitateei errentan emandako lokalak direla-eta.
3. Aipaturako betebeharra eta fidantzaren gordailua bera exiji daitezke eta kontratuak indarrean dirauen artean iraungo dute horiek ere, inongo interesik sorrarazi gabe. Hauexek dira fidantzan jarri beharreko kopuruak:
 - a) Hilabeteko errenta, etxebizitzaren errentamendu-kontratuetan.
 - b) Bi hilabeteko errenta, etxebizitza gisa edo sasoiak erabiltzeaz bestelako xede nagusiren bat duten errentamendu-kontratuetan.
 - c) Sasoiakoko errentamenduetan –zeinak, Hiri Errentamenduen Legearen arabera, etxebizitza-erabileraz bestelakoetarako errentamendutzat hartuko baitira–, fidantzaren zenbatekoa kontratuaren iraundaren proportzioan joango da, kontuan izanik ezarritako bi hilabeteko errentak urtebeteko iraupena duen kontratuari dagozkiola. Ondorio horietarako, sasoiakoko errentamendutzat jotzen dira urtebete baino gutxiago irauten dutenak.
4. Etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurilaritzako sailak erabaki dezake fidantzen dirua etxebizitza-eskubidea sustatzeko politikak finantzatzeko baliatzea, betiere fidantzak, hala eska-

rán obligadas a comunicar al arrendador la realización del depósito, mediante la entrega de una copia de la documentación justificativa del cumplimiento de la obligación de depositar la fianza o de su actualización en el plazo de un mes, a contar desde su ingreso en el correspondiente órgano de la Administración de la Comunidad Autónoma. Este depósito será gratuito y no generará intereses a favor de la persona depositante.

2. No obstante, quedan exceptuadas de la obligación de prestar la fianza prevista en el apartado anterior las administraciones públicas, sus organismos autónomos, las entidades de derecho público, los demás entes públicos dependientes de aquellas y las entidades de titularidad pública que tienen por objeto la mediación en el alquiler cuando actúen como arrendatarios y en relación con el arrendamiento de viviendas de protección pública y anejos vinculados a estas o locales arrendados a entidades sin ánimo de lucro declaradas de utilidad pública o interés social.
3. La obligación antecedente y el depósito mismo de la fianza serán exigibles y permanecerán durante el tiempo de vigencia de los correspondientes contratos, sin devengo alguno de interés, y en las siguientes cuantías:
 - a) Una mensualidad de renta en los contratos de arrendamiento de vivienda.
 - b) Dos mensualidades de renta en los contratos de arrendamiento cuyo destino primordial sea distinto al de vivienda y al de temporada.
 - c) En los arrendamientos de temporada, que conforme a la Ley de Arrendamientos Urbanos tendrán la consideración de arrendamientos para uso distinto del de vivienda, la cuantía de la fianza será proporcional al plazo de duración del contrato, teniendo en cuenta que las dos mensualidades establecidas corresponden al contrato de un año de duración. A estos efectos, tienen la consideración de arrendamientos de temporada los de duración inferior a un año.
4. El departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco podrá disponer del importe de los depósitos para destinarlo a financiar políticas de fomento del derecho a la



tuz gero, itzuli egingo direla bermatzen badu, % 20ko erreserba egingez.

5. Erregelamendu bidez ezarriko da fidantza nola jarri behar den, dirua zuzenean sartuz edo kontzertu bidez; eta non, nola eta zer epetan. Fidantza jarri izana egiaztatze beharrezko xedapenak ere erregelamenduz zehaztuko dira.
6. Nolanahi ere, fidantzaren gordailua Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-sarrera publikotzat joko da, eta, beraz, exekuzio-bidea erabili ahal izango da dagozkion epeetan jarri ez diren fidantzak ordainarazteko, bai eta fidantza jartzeko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko zehapenak ordainarazteko ere. Ordainketa garaiz kanpo egin bada, baina alde aurreko berariazko errekerimendurik behar izan gabe, fidantzaren zenbatekoaren % 2ko errenergua ezarriko da; alabaina, berariazko errekerimendua egin behar izan bada fidantza jarrarazteko, % 10era artekoa izango da errenergua.
7. Behin errentamendu-kontratua azkendutakoan, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, alde aurretik errentariak eskera eginda eta fidantzaren gordailuaren frogagiria eta kontratuaren kopia aurkeztuta, fidantza itzuliko du, gehienez ere hiru hilabeteko epean. Epe hori igaro eta artean ez bada fidantza itzuli interesdunari egotzi ezin zaion arazoirekin batentzat, diruaren legezko interesak ordaindu beharko dira, fidantza itzultzeko epe-muga igarotzen denetik fidantza egiaz itzultzen den artekoak.

55. artikulua. Hiri Finken Errentamendu Kontratuaren Erregistroa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuaren Erregistroa sortzen da. Izaera administratiboa izango du eta etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren mende egongo da. Bertan inskribatu beharko dira Erkidegoko lurraldean kokatutako hiri-finken errentamendu-kontratu guztiak.
2. Erregelamendu bidez arautuko da erregistroak nola funtzionatuko duen, bai eta inskripzioak, zuzenketak eta ezabatzeak nola eta zein kasutan egingo diren ere. Erregistrorako beharrezkoak izango diren gainerako xedapen guztiak ere

vivienda, siempre que quede garantizada la devolución de las fianzas, que en su caso sean reclamadas, con una reserva del 20 %.

5. Reglamentariamente se determinarán las formas de depósito, mediante ingreso directo o mediante concierto, así como el lugar, la forma y el plazo y demás disposiciones precisas para su verificación.
6. En cualquier caso, el depósito de la fianza tendrá la consideración de ingreso de derecho público de la Hacienda General del País Vasco, por lo que podrá utilizarse la vía ejecutiva para el ingreso de las fianzas no depositadas en los plazos correspondientes, así como para el ingreso de las sanciones que deriven del incumplimiento de dicha obligación de depósito. El ingreso extemporáneo, sin requerimiento previo expreso, conllevará un recargo equivalente al 2 % del importe de la fianza, que aumentará hasta el 10 % cuando se efectúe tras ser requerido expresamente para el depósito.
7. Una vez extinguido el contrato de arrendamiento, el departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, previa solicitud del arrendatario acompañada del resguardo de depósito y de copia del contrato, procederá a la devolución de la fianza en el plazo máximo de tres meses. Superado el citado plazo sin que se haya hecho efectiva la devolución por causa no imputable al interesado, se devengará el interés legal del dinero desde la fecha de vencimiento del plazo de devolución hasta la efectiva devolución de la fianza.

Artículo 55. El Registro de Contratos de Arrendamiento de Fincas Urbanas

1. Se crea el Registro de Contratos de Arrendamiento de Fincas Urbanas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de carácter administrativo, dependiente del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de vivienda, y en el que deberán inscribirse todos los contratos de arrendamiento de las fincas urbanas ubicadas en el territorio de la Comunidad.
2. Reglamentariamente se regulará su funcionamiento, los modos y supuestos de inscripción, rectificación y cancelación, así como cuantas otras disposiciones resulten precisas para él, con escrupuloso respeto de la normativa aplica-





arau horretan jasota egongo dira; betiere, konfidentzaltasuna eta datu pertsonalak babesteko aplikatu beharreko arauak zorrotz betetzen direla.

IX. KAPITULUA ETXEBIZITZEN ERABILERA EGOKIAREN, BIZIGARRITASUN BALDINTZEN ETA FUNTZIO SOZIALAREN BERME JURIDIKOAK

1. ATALA JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZAK, INFRAETXEAK ETA ETXEBIZITZA GAINOKUPATUAK

56. artikulua. Jenderik gabeko etxebizitza

1. Etxebizitza jenderik gabe dagoela joko da baldin eta jarraituki bi urtean baino gehiagoan okupatu gabe egon bada, eta, betiere, etxebizitza ez erabiltzea justifikatzen duen arrazoirik izan ez bada lege honetan edo lege hau garatzeko araudian ezarritako baldintzen arabera.
2. Jarraituki okupatu gabe egotea justifikatuta dagoela joko da baldin etxebizitza bigarren bizitexea bada, edo lana, osasuna, mendetasuna edo gizarte-larrialdia dela-eta egoitza aldatu behar izan bada eta horregatik etxebizitza aldi batez desokupatu behar izan bada, edo titularrak merkatuko prezioan baldin badauka eskaintzan jarrita, saltzeko edo alokatzeko, edo kasu horien pareko beste batzuk gertatzen bada. Halaber, okupatu gabe egotea justifikatzen duen arazoia dela joko da titularra irabazi-asmorik gabeko entitatearen bat izatea eta etxebizitza erabilera zehatz baterako gordetzea, kolektibo jakin batzuei zuzenduta.
3. Jenderik gabeko etxebizitzaren deklarazioa dagokion udalak erabaki ahal izango du, edo, bestela, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurilaritzako sailak, dagokion udalari entzun ondoren. Nolanahi ere, ebazpena emateko, administrazio-prozedura bati jarraitu beharko zaio, eta etxebizitzaren titularrei entzun beharko zaie prozedura horren barruan.
4. Jenderik gabeko etxebizitzaren titularrek etxebizitza-gaietan eskumena edo ahalmena duten administrazio eta entitate publikoei utzi ahal izango diete etxebizitzaren kudeaketa, alokairuan, horretarako onartutako hitzarmen eta programetan zehaztutako baldintzetan, betiere.

ble en materia de confidencialidad y de protección de datos de carácter personal.

CAPÍTULO IX GARANTÍAS JURÍDICAS DEL USO ADECUADO, DE LAS CONDICIONES DE HABITABILIDAD Y DE LA FUNCIÓN SOCIAL DE LAS VIVIENDAS

SECCIÓN 1.ª VIVIENDA DESHABITADA, INFRAVIVIENDA Y VIVIENDA SOBRECUPADA

Artículo 56. La vivienda deshabitada

1. Se considerará vivienda deshabitada aquella vivienda que permanezca desocupada de forma continuada durante un tiempo superior a dos años, salvo que concurra motivo que justifique su no utilización en los términos previstos en esta ley y en su normativa de desarrollo.
2. En todo caso, se considerará que concurre causa justificada para la desocupación continuada en el caso de las viviendas de segunda residencia, así como en los supuestos de traslado de domicilio por razones laborales, de salud, de dependencia o emergencia social que justifiquen la necesidad de desocupar temporalmente la vivienda o cuando su titular la mantiene en oferta de venta o alquiler a precios de mercado, así como en otras situaciones equivalentes a las citadas. También se entenderá que concurre causa justificada para la desocupación en el caso de que el titular de la vivienda sea una entidad sin ánimo de lucro que la destina a un uso concreto, dirigido a determinados colectivos.
3. La declaración de vivienda deshabitada podrá acordarse por el ayuntamiento correspondiente, o, en su defecto, por el departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, previa audiencia al ayuntamiento respectivo. En cualquier caso, la resolución irá precedida de un procedimiento administrativo con audiencia a los titulares de la vivienda.
4. Los titulares de viviendas deshabitadas podrán ceder su gestión en régimen de alquiler a las administraciones y entidades públicas con competencias o facultades en materia de vivienda, en las condiciones que se determinen en los convenios y programas aprobados al efecto.



57. artikulua. artikulua. Jenderik gabeko etxebizitzaren kanona

1. Etxebizitzaren jabetzaren funtzio soziala bete dadin sustatze aldera, kanon bat ezartzen da jenderik gabe dauden etxebizitzaren gainean. Kanon hori zergaz bestekoa izango da, jenderik gabeko etxebizitza deklaraturik daudenen gainean ezarriko dute Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, eta kontzeptu horrengatik lortutako diru-sarrerak lurzorua udal lurzorua onduko dute.
2. Kanona pertsona fisikoei nahiz juridikoei ezar dakieke, baita jaraunspen jasogabeei, ondasun-erkidegoei eta bestelako entitateei ere baldin eta, nortasun juridikorik izan ez arren, unitate ekonomiko edo ondare berezia osatzen badute, zerga ezartzeko modukoa, eta jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko jabetza-eskubidearen titularrak badira eta, aldi berean, etxebizitza erabiltzeko eskubidea ere berena badute.
3. Baldin eta dena delako jenderik gabeko etxebizitza gozatzeko eskubide erreala jabeari ez badagokio, kanona eskubide erreala horren titularri ezarriko zaio.
4. Kanona urtero likidatuko da eta jenderik gabeko etxebizitzaren deklarazioa administrazio-bidean behin betiko egintza bihurtzen denetik aurrera. Kanonaren karga 10 euro izango da metro karratu erabilgarri eta urte bakoitzeko, eta % 10 handituko da etxebizitzak aipatu den egoeran dirauen urte bakoitzeko, hasierako zenbatekoaren hirukoitza gainditu gabe betiere.

58. artikulua. Jenderik gabeko etxebizitza nahitaez alokatzea

1. Jenderik gabeko etxebizitza deklaratu direnak nahitaez alokatu beharra ezarri ahal izango da baldin eta kokatuta dauden eremuetan etxebizitzaren eskaria eta premia badagoela frogatzen bada, bai bizitegitarako lurzoruen hiri-sektoreetan eta bai berroneratze-eremuetan, hirigune historikoetan, hiri-erdialdeetan, hiri-auzuneetan edo urbanizazioak finkatutako eremuetan, baina, betiere, jenderik gabeko etxebizitza deklaratu badira eta deklaraziotik urtebete igaro eta gero ere okupatu gabe jarraitzen badute. Udalek ezarri ahal izango dute nahitaez alokatu beharra, eta, subsidiarioki, etxebizitzagaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako

Artículo 57. Canon de vivienda deshabitada

1. Al objeto de fomentar el cumplimiento de la función social de la propiedad de la vivienda, se establece un canon sobre la vivienda deshabitada. Su imposición, de carácter extrafiscal, a cargo de los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi gravará las viviendas declaradas deshabitadas y los ingresos por este concepto dotarán el patrimonio municipal de suelo.
2. La imposición del canon recaerá sobre las personas físicas y jurídicas, así como sobre las herencias yacentes, comunidades de bienes y demás entidades que, aun carentes de personalidad jurídica, constituyan una unidad económica o un patrimonio separado, susceptible de imposición, y sean titulares del derecho de propiedad de la vivienda deshabitada, siempre que estén también en posesión del derecho de uso de la vivienda.
3. En caso de que el derecho real de goce o disfrute sobre las viviendas deshabitadas no corresponda al propietario, el canon recaerá sobre los titulares del citado derecho real.
4. El canon se liquidará anualmente y a partir de que la declaración de vivienda deshabitada constituya un acto definitivo en vía administrativa. El gravamen se fija en un importe de 10 euros por cada metro cuadrado útil y año, que se incrementará un 10 % por año que permanezca en dicha situación, sin que pueda superar tres veces el importe inicial.

Artículo 58. El alquiler forzoso de la vivienda deshabitada

1. Se podrá imponer el alquiler forzoso de las viviendas declaradas deshabitadas y que se ubiquen en ámbitos de acreditada demanda y necesidad de vivienda, tanto en sectores urbanos de suelo residencial como en áreas de regeneración, en cascos históricos, centros urbanos, barrios urbanos y ámbitos consolidados por la urbanización, recayendo únicamente sobre viviendas declaradas deshabitadas que se mantengan desocupadas transcurrido un año desde su declaración. El alquiler forzoso podrá imponerse por los ayuntamientos y, subsidiariamente, por el departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco. En



sailak. Azken kasu horretan, dagokion udalari entzun beharko zaio.

2. Nahitaezko desjabetzearen legeriak xedatzen duenaren arabera izapidetuko da nahitaezko alokatzea. Nahitaez alokatu beharra ezartzea bidezkoa dela deklaratu ondoren, etxebizitzaren titularrak berak ordaindu beharko ditu bizigarritasun-baldintzak bermatzeko beharrezko diren egokitze- edo hobekuntza-obren kostuak eta kudeaketa direla-eta Administrazioak bere gain hartutako gastuak.
3. Etxebizitza deskribatzen duen eta nahitaezko alokatzea ezarri beharra dagoela erabakitzen duen administrazio-bideko akordio edo ebazpen irmoan, zehaztu beharko da zer baldintzatan eduki behar den etxebizitza alokatuta eta zenbat iraungo duen alokatze-aldiak, zeina bost urtekoa izango baita gehienez ere, baina beste bost urterainoko nahitaezko luzapena ezartzeko aukerarekin. Errentaria, berriz, Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan hautatu beharko da, alokairuko etxebizitzaren eskatzaileen artean.

59. artikulua. Infraetxea

1. Infraetxetat hartzen da etxebizitzatarako edozein eraikin edo eraikin-zati, ez baldin baditu gutxienezko bizigarritasun-baldintzak betetzen lege honek eta aplikatzeko den araudi sektorialak edo lege hau garatzeko argitaratutako araudiak zehazten duten moduan.
2. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da gutxienezko bizigarritasun-baldintzak arautzea, eta administrazio publikoek onartzen dituzten plangintza-tresna guztietarako dira nahitaez bete beharrekoak baldintza horiek.
3. Infraetxeak kokatuta dauden udal-barrutiko udalari dagokio infraetxe horien bizigarritasunik ezaren deklarazioa egitea, lege honen hurrengo artikulua xedatzen duenaren arabera.
4. Infraetxeen bizigarritasunik ezaren deklarazioa, behin betikoa eta administrazio-bidean irmoa denean, jabetza-erregistroan inskribatu beharko da; hortik aurrera, eraikina ezingo da bizitegitarrako erabili harik eta egoera hori aldatu arte.

este último caso, deberá concederse audiencia al ayuntamiento respectivo.

2. La imposición del alquiler forzoso se tramitará de conformidad con lo dispuesto en la legislación de expropiación forzosa. Declarada la procedencia de imponer el alquiler forzoso, el titular de la vivienda deberá sufragar los gastos asumidos por la Administración en la gestión y el coste de las obras de acondicionamiento o mejora que resulten precisas para garantizar las condiciones de habitabilidad.
3. En el acuerdo o resolución firme en vía administrativa por el que se describa la vivienda y se decida la necesaria imposición del alquiler forzoso, se deberán determinar las condiciones de mantenimiento de la vivienda en alquiler, así como el plazo de este, que no será superior a cinco años, si bien se podrá imponer su prórroga forzosa hasta cinco años más, y se seleccionará al arrendatario de entre los demandantes de alquiler del Registro de Solicitantes de Vivienda Protegida y Alojamientos Dotacionales.

Artículo 59. Infravivienda

1. Se considera infravivienda toda edificación o parte de ella, destinada a vivienda, que no cumpla con las mínimas condiciones de habitabilidad en los términos establecidos en la presente ley y en la normativa sectorial de aplicación o en la que se publique en desarrollo de esta ley.
2. Es competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco la regulación de las condiciones mínimas de habitabilidad que serán de cumplimiento obligatorio para los instrumentos de planeamiento que aprueben otras administraciones públicas.
3. El ayuntamiento del término municipal en que se ubiquen las infraviviendas procederá a la declaración de inhabilitación de aquellas en los términos previstos en el artículo siguiente de la presente ley.
4. La declaración de inhabilitación de las infraviviendas, cuando sea definitiva y firme en vía administrativa, se inscribirá en el registro de la propiedad y conllevará la prohibición de su utilización residencial en tanto persista la citada situación.





60. artikulua. Bizigarritasunik ezaren deklarazioa

1. Infraetxean kasuan, eta etxebizitza edo bizitoki bat erabiltzeak arriskuan jartzen duenean pertsonen osasuna edo segurtasuna, edo erregelamenduz ezarritako bizigarritasun-baldintzak betetzen ez direnean, Udal Administrazioak higiezin horien bizigarritasunik eza deklaratu ahal izango du, bai behin-behinean eta badaezpada, bai behin betiko. Hortik aparte, dago-kion udalak bidezko diren presako neurriak har ditzake higiezina utzarazteko eta segurtatzeko.
2. Bizigarritasunik ezaren deklarazioa behin betikoa bada eta administrazio-bidean irmoa, bidezko diren esku-hartze neurriak hartu beharko dira higiezina berriz ere bertan bizitzeko modukoa izateko, lehenetsuna emanez beharrezko diren sustapen-, birgaitze- eta laguntza-neurriek; eta, bitarte horretan, aukera izango da aurrera jarraitzeko exekuzio-aginduekin, edo aurrigoeraren deklarazioarekin –hala dagokionean – eta baita ere nahitaezko desjabetze, salmenta edo ordezenarekin, funtzio soziala betetzen ez bada. Edonola ere, beti errespetatu behar da etxebizitza legez okupatzeko eskubidea, lege honen eta lege hau garatzeko ezarriko den araudiaren arabera.
3. Bizigarritasunik ezaren deklarazioa badaezpada edo aldi baterako ematen bada, osasungarritasunik eza konpon daitekeelako garbitasuna eginda edo hondakinak kenduta, dagokion udalak, gizarte-zerbitzuei dagozkien jarduketak eragotzi gabe eta zerbitzu horiei lagunduz, behar den baimen judiziala lortuta, egoitzara sartzeko eta aipatutako lanak egiteko agin dezake, eta lan horien kostua egoera horren erantzuleei egotzi.

61. artikulua. Gainokupatutako etxebizitza

1. Etxebizitza bat gainokupatuta dagoela jotzen da han bizi direnen kopurua handiagoa bada bertarako egokitzat jotzen den gehieneko kopurua baino, kontuan hartuta bizigelen azalera, kopuru eta neurria eta etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak. Erregelamendu bidez finkatuko dira gainokupatutako etxebizitzeari aplikatu beharreko araubidea eta gainokupazioa saihesteko eta konpontzeko jarduketak.

Artículo 60. Declaración de inhabilitación

1. En los casos de infravivienda, así como en los supuestos en que la utilización de una vivienda o alojamiento suponga un peligro para la seguridad o salud de las personas, o cuando se incumplan las condiciones de habitabilidad que reglamentariamente se determinen, y sin perjuicio de la adopción por parte del ayuntamiento correspondiente de las medidas urgentes de desalojo y aseguramiento que resulten procedentes, la Administración municipal podrá declararlos inhabitables, lo que podrá hacerse tanto con carácter provisional y cautelar como con carácter permanente.
2. La declaración de inhabilitación, cuando sea definitiva y firme en vía administrativa, conllevará la necesaria adopción de las medidas de intervención que resulten procedentes, con prioridad de las de fomento, rehabilitación y ayuda, para que permitan recuperar la habitabilidad del inmueble, pudiendo seguirse con la emisión de órdenes de ejecución, o declaración, en su caso, de ruina e incluso expropiación, venta o sustitución forzosa por incumplimiento de la función social. Se respetará, en todo caso, el derecho de acceso a la ocupación legal de una vivienda en los términos de la presente ley y normativa que se dicte en su desarrollo.
3. Cuando la declaración de inhabilitación se adopte con carácter cautelar o temporal, por razones de insalubridad que puedan resolverse con simples labores de limpieza y retirada de residuos, sin perjuicio de las actuaciones que correspondan a los servicios sociales y en apoyo de estos, el ayuntamiento correspondiente, con la autorización judicial pertinente, podrá ordenar la entrada domiciliaria y la realización de las mencionadas labores con cargo a los responsables de la referida situación.

Artículo 61. Vivienda sobreocupada

1. Se considera que una vivienda se encuentra sobreocupada cuando su número de habitantes excede del máximo considerado adecuado en relación con la superficie, número y dimensión de las piezas habitables y condiciones de habitabilidad de la vivienda. Reglamentariamente se regulará el régimen aplicable a las viviendas sobreocupadas y las actuaciones tendentes a evitar y corregir las situaciones de sobreocupación.





2. Aurreko paragrafoan aipatzen den erregelamendu bidezko garapen hori egin ezean edo egin bitartean, etxebizitza bat gainokupatuta dagoela joko da bertan bizi diren pertsonen kopuruak ratio hauen arabera dagokiona gainditzen duenean:

- a) Etxebizitza batean pertsona 1 bizi bada, etxebizitzak 25 metro karratu erabilgarriko azalera eduki beharko du gutxienez.
- b) Etxebizitza batean 2 pertsona bizi badira, hark 33 metro karratu erabilgarriko azalera eduki beharko du gutxienez.
- c) Etxebizitza batean 3 pertsona edo gehiago bizi badira, hark 15 metro karratu erabilgarriko azalera eduki beharko du, gutxienez, pertsonako.

Honetarako ez dira kontuan hartuko terrazen, balkoien eta esekitokiaren azalera.

2. ATALA ETXEBIZITZAK EGOKI ERABILTZEN DIRELA BERMATZEKO JARDUKETA PUBLIKOAK

62. artikulua. Funtzio soziala betetzen ez duten etxebizitzetan Administrazioak esku hartzeko tresna publikoak

1. Etxebizitzak egoki erabiltzen direla eta dagokien funtzio soziala benetan betetzen dutela bermatzeko, eskumena duten administrazioek behar diren sustapen-neurriak hartuko dituzte, eta horiek erregelamendu bidez garatuko dira.
2. Horrez gain, funtzio soziala betetzen ez delako beharrezkoa denean –behar bezala arrazoituta–, eskumena duten administrazio publikoek esku hartze administratiboko hainbat neurri hartu ahal izango dute etxebizitzaren eta haien titularren gainean. Aurretiaz, edonola ere, administrazio-espedita osatu beharko da eta interesdunei entzun beharko zaie; espedita horretan, esku hartzeko aukera guztiak aztertuko dira, eta justifikatu beharko da ezen hautatzen dela administratuen eskubideei kalterik txikiena egiten diona eta, aldi berean, dena delako kasu jakinean bermatzen duena etxebizitza egoki erabiltzen dela eta bete behar duen funtzio soziala betetzen duela. Hona hemen hartu ahal

2. En defecto del desarrollo reglamentario previsto en el apartado anterior y en tanto no se proceda a realizarlo, se entenderá que una vivienda incurre en situación de sobreocupación cuando el número de personas residentes en ella supere el que le corresponda en función de las ratios siguientes:

- a) Una vivienda con 1 persona residente en ella deberá disponer como mínimo de 25 metros cuadrados útiles de superficie.
- b) Una vivienda con 2 personas residentes en ella habrá de contar como mínimo con 33 metros cuadrados útiles de superficie.
- c) Una vivienda con 3 o más residentes en ella deberá disponer como mínimo de 15 metros cuadrados útiles de superficie por persona.

A estos efectos no se computarán las superficies de terrazas, balcones o tendedores.

SECCIÓN 2.ª ACTUACIONES PÚBLICAS PARA GARANTIZAR EL USO ADECUADO DE LAS VIVIENDAS

Artículo 62. Instrumentos públicos de intervención administrativa en viviendas que no cumplen la función social

1. Para garantizar el uso adecuado de las viviendas y el efectivo cumplimiento de la función social que les corresponde, las administraciones competentes adoptarán las medidas de fomento y estímulo procedentes, que se desarrollarán por vía reglamentaria.
2. Sin perjuicio de ello, cuando motivadamente resulte preciso por causa de incumplimiento de la función social, las administraciones públicas competentes podrán adoptar sobre las viviendas y sus titulares las medidas de intervención administrativa que se relacionan a continuación. Todo ello, previo expediente administrativo, con audiencia a los interesados, en el que se analicen las diferentes medidas de intervención posibles y se justifique que se opta por aquella que, resultando menos gravosa para los derechos de los administrados, garantice en el supuesto concreto el uso adecuado de la vivienda y el efectivo cumplimiento de la función social.



izango diren neurriak:

- | | |
|---|--|
| a) Lehentasunez eskuratzeko eskubidea eta etxegabetze administratiboa erabiltzea. | a) Ejercicio del derecho de adquisición preferente y del desahucio administrativo. |
| b) Jabetza kentzea funtzio soziala ez bete-tzeagatik. | b) Expropiación por incumplimiento de la función social. |
| c) Nahitaezko salmenta edo ordezipena. | c) Venta o sustitución forzosa. |
| d) Exekuzio-aginduak. | d) Órdenes de ejecución. |
| e) Jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko kanona. | e) Canon sobre las viviendas deshabitadas. |
| f) Nahitaezko alokatzea jenderik gabeko etxebizitzaren kasuan. | f) Alquiler forzoso en el caso de las viviendas deshabitadas. |
| g) Hertsapen-isunak ezartzea. | g) Imposición de multas coercitivas. |
| h) Zehapenak ezartzea. | h) Imposición de sanciones. |

63. artikulua. Etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko baliabideak

1. Etxebizitza edo bizitoki baten erabilera desegokia frogatzeko, eskumena duten administrazioek, lege honekin bat etorritik, zuzenbidean onartzen diren bidez gain, honako hauek eskatu eta kontuan hartu ahal izango dituzte:
 - a) Biztanleen erroldaren eta beste erregistro publiko batzuen datuak.
 - b) Uraren, gasaren eta elektrizitatearen ohiko kontsumoak, ohikoak baino handiagoak edo txikiagoak.
2. Artikulu honen 1. paragrafoan adierazitako zerbitzuen konpainia hornitzaileek eta entitate kudeatzaileek derrigor eman beharko dituzte etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko eskatzen zaizkien datuak, betiere datuen babesari buruzko araudia erabat errespetatuz. Datuak lortzeko orduan eta beste edozein erregistro publikotatik lortutako informazioa tratatzeko orduan ere araudi hori bera bete beharko da.
3. Lehenengo paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko kontsumoak baino txikiagoak daudela joko da baldin eta justifikatzen ez bada pertsona bati bizitegi-erabilerarako dagokion gutxienezko ur-, gas- eta elektrizitate-kontsumoa. Eta ohiko kontsumoak baino handiagoak dau-

Artículo 63. Medios para acreditar el uso inadecuado de las viviendas

1. Al objeto de acreditar la situación de uso inadecuado de una vivienda o alojamiento, las administraciones competentes, conforme a la presente ley, podrán requerir y tener en cuenta, además de cuantos medios sean admitidos en derecho, los siguientes extremos:
 - a) Datos del padrón de habitantes y de otros registros públicos.
 - b) Consumos anormales, por exceso o por defecto, de agua, gas y electricidad.
2. Las compañías suministradoras y entidades gestoras de los servicios señalados en el apartado 1 de este artículo estarán obligadas a facilitar los datos que se requieran para acreditar el uso inadecuado de las viviendas, con pleno respeto a la normativa de protección de datos. Asimismo, deberá respetarse dicha normativa en la obtención de datos y tratamiento de la información obtenida de cualquier otro registro público.
3. A los efectos de lo dispuesto en el apartado 1, se considerará que existen consumos anormales por defecto cuando no se justifique el consumo mínimo de agua, gas y electricidad que corresponde a una persona para un uso residencial. Y se considerará que existen consumos anor-





dela joko da baldin eta etxebizitza edo bizitoki batean gainditu egiten bada lege honetan eta lege hau garatzeko araudian etxebizitza gainokupatuari buruz xedatutakoaren arabera haietan gehienez ere bizi daitekeen jende-kopuruari dagokion gehieneko kontsumoa.

Artikulu hau aplikatu ahal izateko, erregelamendu bidez zehaztuko da zer jotzen den, pertsona batentzat, bizitegi-erabilerarako ur-, gas- eta elektrizitate-kontsumoaren gutxieneko eta gehieneko mugatzat. Erregelamendu hori egiten ez den bitartean, gutxieneko kontsumotzat joko da Estatistikako Institutu Nazionalaren azken argitalpenaren arabera pertsona bakoitzari batez beste dagokion ur-, elektrizitate- eta gas-kontsumoaren herena, eta gehieneko kontsumotzat joko da Estatistikako Institutu Nazionalaren azken argitalpen horren arabera pertsona bakoitzari batez beste dagokion kontsumoa halako hiru.

3. ATALA

ETXEBIZITZAREN ETA ZUZKIDURA BIZITOKIEN MERKATUAN ESKU HARTZEKO TRESNA PUBLIKOAK

64. artikulua. Eroslehentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eroslehentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea izango ditu lehenengo eta hurrengo eskualdatzeetan babes publikoko etxebizitzak eta haien eranskinen gainean, eta lokal eta higiezinaren gainean ere, babes publikoko kalifikazio urbanistikoa duten lurzoru eraikigarriak edo xede parekagarria dutenak barne.
2. Etxebizitza babestuetan eta eranskin, lokal eta higiezin babestuetan, eta urbanistikoki horretarako kalifikaturiko lurzoruetan, lurralde historikoek edo udalek sustatu badituzte edo sustatu behar badituzte, lurralde historikoek eta udalek ere izango dute eroslehentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea lehenengo eta hurrengo eskualdatzeetan. Baina entitate publiko horiek erabakitzen badute eskubide horiek ez erabiltzea, berehala jakinarazi beharko diote etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaur-laritzako sailari, eta hark erabiliko ditu haien orde, lege honetan jasota datozen epeetan eta moduan betiere.
3. Eroslehentasun-eskubidea erabili ahal izango da bai jabetzaren eta bai azalera-eskubidearen

males por exceso cuando se supere el consumo máximo que corresponde al número máximo de personas que puedan habitar en la vivienda o alojamiento a tenor de lo dispuesto en esta ley y su normativa de desarrollo respecto a la vivienda sobreocupada.

Reglamentariamente se determinarán los límites de consumo de agua, gas y electricidad que se consideran mínimos y máximos para el uso residencial, por persona, a los efectos de la aplicación de este artículo. En tanto no se produzca el desarrollo reglamentario, se considerará consumo mínimo la tercera parte del consumo medio de agua, electricidad y gas por persona según la última publicación del Instituto Nacional de Estadística, y se considerará consumo máximo el triple del consumo medio por persona según la citada última publicación del Instituto Nacional de Estadística.

SECCIÓN 3.ª

INSTRUMENTOS PÚBLICOS DE INTERVENCIÓN EN EL MERCADO DE LA VIVIENDA Y DE LOS ALOJAMIENTOS DOTACIONALES

Artículo 64. Derechos de tanteo y retracto

1. La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco gozará de los derechos de tanteo y retracto en la primera y sucesivas transmisiones sobre las viviendas de protección pública y sus anejos, así como sobre los locales e inmuebles, incluyendo los suelos no edificados con calificación urbanística de protección pública o destino asimilable.
2. Los territorios históricos y los ayuntamientos gozarán igualmente de los derechos de tanteo y retracto en la primera y sucesivas transmisiones de las viviendas protegidas y de los anejos, locales e inmuebles protegidos, incluyendo los suelos urbanísticamente calificados con tal finalidad, cuando hayan sido o deban ser promovidos por ellos. No obstante, si estas entidades públicas decidieren no ejercitar los mencionados derechos, lo pondrán en inmediato conocimiento del departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, que los ejercerá en su sustitución, siempre en los plazos y modos previstos en el presente texto legal.
3. El derecho de adquisición preferente podrá ser ejercitado en las transmisiones "inter vivos" o



"inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatzeetan, doakoetan zein kostu bidezkoetan, borondatezkoetan zein ondarearen gaineko exekuzio-prozeduren ondoriozkoetan.

4. Ezin izango dira erabili eroslehentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea ondorengoan, aurrekoen, ezkontideen edo izatezko bikote gisa erregistratutako bikotekideen alde egindako doako eskualdatzeetan, kasu hauetan izan ezik: etxebizitza hartzailearen bizileku ohiko eta iraunkorra bihurtzeko ez izatea edo hartzailearen ahalmen ekonomikoa edo ondare-egoera oso diferentea izatea etxebizitza babestu baten esleipenerako eskatzen denaren aldean. Era berean, eroslehentasun-eskubidetik eta atzera eskuratzeko eskubidetik kanpo gelditzen da etxebizitza eta haren eranskinak bikote ezkonduaren edo behar bezala erregistratutako izatezko bikotearen irabazpidezko sozietateari lagatzea eta irabazpidezko sozietatea desagitearen ondorioz etxebizitza eta haren eranskinak ezkontideetako edo bikotekideetako bati esleitzea, horiek ez baitira eskualdaketatzat hartzen lehentasunez eskuratzeko eskubidea aplikatzeko orduan.

5. Babestu gabeko etxebizitzak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango da batez ere bizitegi-erabilerara zuzendutako eraikin osoen gainean eta etxebizitzaren lurraldearen arloko planek etxebizitza-eskari frogatuko eremu gisa zedarrituak dituzten tokietako etxebizitza zehatzen gainean.

Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidean sartzen dira merkataritza-sozietateen akzio eta partaidetza sozialen eskualdaketak, baldin eta xede soziala zuzenean edo zeharka higiezinaren arloko jarduerari lotuta badago eta eraikin edo etxebizitza horietakoren baten jabeak badira sozietate horiek.

6. Hipoteka-exekuzioen prozesuetan eskuratutako etxebizitzaren eskualdaketa, edo konpentsazio bidez edo hipoteka-bermedun zorra ordainduz eskuratutakoena, baldin eta etxebizitza horiek lurraldearen arloko planetan etxebizitza-eskari frogatuko eremu gisa zedarritutako tokietan badaude, Euskadiko Administrazio publikoaren lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearen barruan sartzen dira, lege honetan ezarritako prozeduren arabera, dela zuzenean edo dela nortasun juridiko propioa duten eta etxebizitza-gaietan eskudun diren zuzenbide publikoko entitateen bitartez.

"mortis causa" tanto de la propiedad como del derecho de superficie, ya sean gratuitas u onerosas, voluntarias o derivadas de un procedimiento de ejecución patrimonial.

4. No podrán ejercitarse los derechos de tanteo y retracto en las transmisiones gratuitas a favor de descendientes, ascendientes, cónyuges o parejas registradas como parejas de hecho, salvo que la vivienda no vaya destinada a residencia habitual y permanente de su destinatario o destinataria o que su capacidad económica o situación patrimonial sea manifiestamente desproporcionada respecto a la exigida para el acceso a la adjudicación de una vivienda protegida. La cesión de la vivienda y sus anejos a la sociedad de gananciales del matrimonio o pareja de hecho debidamente registrada y la adjudicación de la vivienda y anejos a uno de los integrantes del matrimonio o pareja por disolución de la sociedad de gananciales también quedan exceptuadas de los derechos de tanteo y retracto, no considerándose transmisión a los efectos de la aplicación del derecho de adquisición preferente.

5. El derecho de tanteo y retracto de viviendas no protegidas podrá ejercerse sobre edificios enteros destinados a uso residencial principalmente y sobre viviendas concretas en áreas que hayan sido delimitadas por los planes territoriales sectoriales de vivienda como de acreditada demanda de vivienda.

El derecho de tanteo y retracto incluye las transmisiones de acciones y participaciones sociales de sociedades mercantiles cuyo objeto social esté vinculado directamente o indirectamente a la actividad inmobiliaria y que sean propietarias de alguno de esos edificios o viviendas.

6. La transmisión de viviendas adquiridas en proceso de ejecución hipotecaria o mediante compensación o pago de deuda con garantía hipotecaria y que estén situadas en áreas de acreditada demanda que figuren delimitadas en los planes territoriales sectoriales de vivienda está sujeta al derecho de tanteo y retracto de la Administración pública vasca, de conformidad con los procedimientos establecidos en la presente ley, bien directamente o a través de entidades de derecho público con personalidad jurídica propia y competentes en materia de vivienda.





7. Titular eskualdatzaileak etxebizitza-gaietan eskumena duen sailari edo haren ordezkari den erakundeari jakitera eman beharko dio eskualdatzeko erabakiaren berri.

65. artikulua. Eroslehentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzeko prozedura

Aurreko artikuluan azaldutako eroslehentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea prozedura honen arabera erabiliko dira:

- a) Eskualdatzaileak bere eskualdatzeko asmoa jakinarazi beharko dio, frogagarriro, dagokion administrazioari, eta prezioa, ordainketa-geroratzea –halakorik balego– eta funtsezko gainontzeko baldintzak adieraziko dizkio. Era berean, eskuratzailerak nor den frogatu beharko du.
- b) Ondarearen gaineko exekuzio-prozeduretan egindako eskualdatzeen kasuan, esleipena egingo duen erakundeak Administrazio publikoari jakinarazi beharko dio eskualdatzearen berri aldeztuz aurretik, hiru eguneko epean, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, eta prezioa zein izango den eta esleipenduna nor izango den adieraziko dio. Dena dela, babes publikoko etxebizitzaren esleipendun izateko ezarritako betekizunak bete beharko ditu eskuratzailerak, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian jasotako eran.
- c) Baldin eta aipatutako administrazioak eroslehentasun-eskubidea erabili ez badu jakinarazpen oso eta frogagarria jaso eta 30 egun naturaleko epean, eskubide hori iraungi egingo da jakinarazitako eskualdatzeari dagokionez.
- d) Eskualdatzaileak ez badu jakinarazpenik egin, edo jakinarazpena akastuna bada edo osorik ez badago, edo jakinarazitako eskualdatzea eroslehentasun-eskubidea iraungi aurretik egin bada edo jakinarazitako baldintzetan egin ez bada, Administrazioak atzera eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du. Eskubide hori erabiltzeko epea 60 egun naturalekoa izango da eskuratzailerak jakinarazpena egin eta biharramunetik kontaktzen hasita; izan ere, eskuratzailerak, kasu guztietan, jakinarazi egin beharko dio Administrazioari funtsezko zein baldintzetan

7. La decisión de transmitir se deberá comunicar por parte del titular transmisor al departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco o al organismo que lo represente.

Artículo 65. Procedimiento para el ejercicio del tanteo o del retracto

El ejercicio de los derechos de tanteo y retracto indicados en el artículo anterior se efectuará conforme al procedimiento siguiente:

- a) La parte transmitente deberá notificar fehacientemente a la administración correspondiente su voluntad de transmitir señalando el precio, aplazamiento de pago, si existiera, y el resto de las condiciones esenciales, debiendo acreditar también la identidad de la adquirente.
- b) En los supuestos de transmisiones llevadas a cabo en un procedimiento de ejecución patrimonial, el organismo que haya de proceder a la adjudicación deberá realizar la previa notificación de esta circunstancia, en el plazo de tres días, a la Administración pública según lo previsto en el artículo precedente, con indicación del precio y la identidad de la persona que vaya a ser adjudicataria. En todo caso, la parte adquirente deberá cumplir los requisitos establecidos para poder resultar adjudicataria de la vivienda de protección pública en los términos previstos en la presente ley y normativa de desarrollo.
- c) Si la citada administración no ejercitara el tanteo en el plazo de los 30 días naturales siguientes a la notificación completa y fehaciente, se producirá la caducidad de tal derecho respecto a la transmisión notificada.
- d) En el caso de falta de notificación de la parte transmitente, o siendo defectuosa o incompleta la notificación, o habiéndose producido la transmisión notificada antes de la caducidad del derecho de tanteo o en condiciones distintas a las notificadas, la Administración podrá ejercer el derecho de retracto. Este se ejercerá en el plazo de 60 días naturales contados desde el siguiente a la notificación, que la adquirente deberá hacer en todo caso a la Administración, de las condiciones esenciales en que se efectuó la transmisión, mediante entrega fehaciente.



egin zen eskualdatzea, dagokion eskritura publikoaren kopia frogagarriro emanez.

- e) Aurreko idatzi-zatian adierazitako jakinarazpena egiteko, eskuratzailerak 30 egun naturaleko epea izango du, eskualdatzea eskritura publikoan jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- f) Egindako eskualdatzearen berri jakinarazteko eginbeharra bete ez bada, Administrazioak, beste bideren batetik jakiten badu eskualdatze hori izan dela, atzera eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du jakiten duen unetik bertatik, artikuluko honetako d) idatzi-zatian adierazitako baldintza beretan.
- g) Eskualdatzearen gaineko jakinarazpen frogagarria garaiz eta forma egokian jaso ondoren, Administrazioak, arrazoiak emanda, uko egin ahal izango dio eroslehasun-eskubidea erabiltzeari, eta uko horren berri eman beharko die eskualdatzailerari eta eskuratzailerari.

66. artikulua. Babestutako etxebizitzaren eta haien eranskinen eskuratzeko-tituluen eskritura publikoan jasotzea eta erregistroan inskribatzea

1. Notarioek ez dute baimenduko eskritura publikoan jasotzea babes publikoko etxebizitzaren eta haien eranskinen eskuratzeko-tituluen, ezta babes publikoko gisa kalifikatutako lokal eta higiezinak ere, baldin eta behar bezala frogatzen ez bada aurreko artikuluko a) idatzi-zatian adierazitako jakinarazpena egin dela eta Administrazioak eroslehasun-eskubidea erabiltzeko daukan legezko epea igaro dela.
2. Jabetza-erregistratzaileek ukatu egingo dute aipatutako higiezinaren eskuratzeko-tituluen inskripzioa, baldin eta behar bezala frogatzen ez bada aurreko artikuluko a) idatzi-zatian adierazitako jakinarazpena egin dela eta Administrazioak lehasun-erregistroaren eskubidea erabiltzeko daukan legezko epea igaro dela.
3. Notarioek eta jabetza-erregistratzaileek etxebizitzaren eta haien eranskinen eskuratzeko-tituluen eskritura publikoan jasotzeko edo erregistroan inskribatzeko dagoen

ente de copia de la escritura pública correspondiente.

- e) La notificación de la parte adquirente expresada en la letra anterior deberá ser efectuada por esta en el plazo de 30 días naturales contados desde el siguiente a la fecha de formalización de la transmisión en escritura pública.
- f) En el supuesto de incumplimiento del deber de notificación de la transmisión efectuada, la Administración, desde el momento en que tuviera conocimiento por cualesquiera otros medios de la realidad de tal transmisión, podrá ejercer el derecho de retracto en las mismas condiciones de la letra d) del presente artículo.
- g) Recibida la notificación fehaciente de la transmisión en tiempo y forma, la Administración podrá renunciar motivadamente al ejercicio del derecho de tanteo, debiendo comunicar la citada renuncia tanto a la parte transmitente como a la adquirente.

Artículo 66. Escritura pública e inscripción registral de los títulos de adquisición de las viviendas de protección y sus anejos

1. Los notarios no autorizarán la formalización en escritura pública de los títulos de adquisición de las viviendas de protección pública y sus anejos, ni sobre los locales e inmuebles que tengan la calificación de protección pública, cuando no se acredite debidamente la existencia de la notificación prevenida en la letra a) del artículo precedente y el transcurso del plazo legal con que cuenta la Administración para el ejercicio del derecho de tanteo.
2. Los registradores de la propiedad denegarán la inscripción de los títulos de adquisición de los referidos inmuebles cuando no se acredite debidamente la existencia de la notificación prevenida en el apartado a) del artículo precedente y el transcurso del plazo legal con que cuenta la Administración para el ejercicio del derecho de adquisición preferente.
3. Los notarios y registradores de la propiedad deberán notificar al departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco cualquier pretensión de formalización en escritura pública o de inscripción registral de transmisiones de viviendas de protección pública y sus anejos, así como de los locales e inmuebles



edozein asmo, baldin eta horiek Administrazioak lehenasunez eskuratzeko eskubidearen eraginpean badaude eta aurreko artikuluan eskatzen diren jakinarazpen frogagarriak ez badituzte.

